

ERRAUTSEN PARKEA. INAUGURAZIO EKITALDIA. USURBIL, 2017-12-16

Yolanda Arrieta Malaxetxebarria

Bazen behin, Bagdadeko hirian, merkatari aberats baten zerbitzuan lan egiten zuen morroi bat. Egun batez, goizaldetik, morroia Bagdadeko azokara abiatu zen erosketak egitera. Baina goiz hura ez zen beste goizak bezalakoa izan. Goiz hartan, Heriotza ikusi baitzuen azokan. Eta Heriotzak keinu egin baitzion morroiari.

Izututa, morroia merkatariaren etxera itzuli zen.

«Nagusia» esan zion-. «Utzidazu etxeko zaldirik azkarrena. Gaur gauerako Bagdad honetatik urruti egon nahi nuke; gaur gauerako Ispahango hiri apartatu hartan egon nahi nuke.»

«Baina, zergatik egin nahi duk ihes?»

«Azokan Heriotza ikusi dudalako, eta amenazuzko keinu bat egin didalako orduan.»

Merkataria hunkitu egin zen, eta zaldia utzi zion. Eta morroia abiatu zen, gauean Ispahanen egongo zelako esperantzatan.

Egun hartako arratsaldean, merkataria bera joan zen azokara. Eta goizean morroiak bezala, berak ere Heriotza ikusi zuen han.

«Heriotza» esan zion berarengana inguratuz-. «Zergatik egin diozu amenazuzko keinu bat nire morroiari?»

«Amenazuzko keinu bat?» erantzun zion Heriotzak-. «Ez, ez da amenazuzko keinua izan, baizik eta harridurazkoa. Harritu egin naiz hura hemen ikusteaz, hain urrun Ispahandik; ze, gaur gauean Ispahanen hartu behar baitut zure morroi hori ... »

Obabakoak. B. Atxaga

Heriotzak giltzarik gabe ate guztiak ireki dio esaera zaharrak.

Agian, horrexegatik, Heriotzari ihes egin ezin zaiolako, Heriotzak giltzarik gabe ate guztiak irekitzen dituelako, babesten gara sinesmenean. Baina ez denok. Eta ezta modu berdinean ere. Kristauek hil ondorengo berpizkundean sinesten dute, “egun handiraino” kantatu ohi zaio hildakoari, azken agurrean. Egun handi hori paradisuari dago. Islamak ere, harritzen bazarete ere, kristautasunak bezala, bizitza on baten aldarria egiten du, eta heriotza ez du bizitza amaiera legez irudikatzen, baizik eta

betierekiko bizitzara iristeko igarobide gisa: Heriotza, atsedenaldira bihurtzen da, jaungoikoarengan liberatzeko modua. Judutarren artean, gorpua eta arima bereiztea litzateke Heriotza, mundu honetatik etorkizuneko mundura igarotzea. Budistek, berriz, Heriotza bizitzarekin lotzen dute, ezin bata izan bestea gabe.

Frank Ostaseski, maisu budistak zera dio: "Bizitzeko irakaslerik onena da Heriotza". Izan ere, "Zer duzu nahiago? Jaio den egunean bertan hiltzen den gerezi-lorea ala ehunka urte iraun dezakeen plastikozkoa? "

Ez da urrutiegi joan behar. Begiratu, gaur, hementxe bertan, parean eta inguruan duguna. Sinesmen guztiak batuta, euskarak hain zehatz asmatutako Ama-Lurra aurrean, azpian, ondoan eta gainean daukagula. Denok berdinduta gaude, Heriotzaren izenean, eta, era berean, denok bat eginda, bizitzako une errepika-ezin honetan.

Ondo asko ikus dezakegu, bertotik, nola doan soinekoz aldatzen gure Ama-Lurra. Atzo hosto horia zena, gaur orbela, bihar elur azpiko hazi, etzi lore eta etzidamu orri, kimu, fruitu eta berriro hosto gorri, hori, orbela eta elur azpiko hazi...

"Denok hilko gara, ama?" Galdetu ohi du haurrak, jakin-minez.

"Zu ere bai, ama?" Berriro ere, bere gardentasun sakon bezain argian.

Ez naiz nor zer erantzun esateko. Ez naiz nor zer egin aholkatzeko.

Nik, inguratzen nauenari begiratzen diot, gaur hementxe egiten ari naizen bezala: haziari, kimuari, garauari, loreari... begiratzen diet. Eta argazkiak begiratzen ditut: nor ziren nire aurretikoak, nola bizi zen nire ama nire adinean, eta amama?, eta birramama... Nolakoak zen nire herria ni jaio baino lehen, zer aldatu da, zer ez? Nola bizi nahi dut nik hogeitun urte barru? Nolakoak izango dira nire ondorengoak ni ez nagoenean? Nolakoak izango da leku hau berrogeita hamar urte barru?

Irudimenak laguntzen dit ulertzen katearen partaide naizela. Oroimenak, berriz, laguntzen dit konturatzen, ni jaio baino lehen ere bazegoela mundua. Oroimenak eta irudimenak elkar hartuta erakusten didate norbaitengandik natorrela ni eta, era berean, norbaitenganako zubi bihurtzen ari naizela. Begiek, belarriek, eskuek, sudurrak eta ahoak ohartarazten didate, berriz, kidez eta senidez beteriko munduan bizi naizela. Zu, zu, zu, zu, zu, zuhaitz hori, mendi hura, arnasten ari naizen airea, aire hau sortarazi duen olatua, neguari bultzaka ari den udazkena... denak ditut bizikide, denak ditut / zaituztet neba-arreba.

Orbelak orbelari musu

lurraren gainean.

zuhaitz ama lo

hosto berrien esperoan.

Haurdun dago mundua

neguko isiltasunean.

Zioen Joxantonio Ormazabal zenak.

Deseginda hazia

egin da lorea

deseginda lorea

egin da fruitua

deseginda fruitua

egin da hazia

Dio, berriz, Pello Añorgak.

Jaio da goizeko eguzkia;

harekin batera, itsasoa.

Elkarrengandik urrun egingo dute eguerdia;

elkarrekin, berriro, gaueko loa.

Juan Kruz Igerabideren hitzak dira.

Bizitzaren atea

dukezu heriotza

Heriotzaren ataria

dugu bizitza

Joxan Artzek ere bi liburu bete gogoeta eskaini zigun gaiaz, duela lau urte.

-Udaberriko lore ederra,

non izan zara neguan?

-Elur zurien beldurragatik,

sarturik zelai barruan.

Aspaldiko olerkiak ere pista asko ematen dit...

... Eta horrela, han irakurriak, hari entzunak, hor ikusiak eta bertan bizi izandakoak zera esaten didate:

DENOK GAUDE DENONGAN
DENOK GARA GUZTION PARTE
FORMAZ ALDATZEN GARA,
BESTERIK EZ.